MUSEO DE NAVARRA
NAFARROAKO MUSEOA
TODO EL ARTE ES CONTEMPORÁNEO
ARTE ORO GARAIKEDEA DA

SALA 4.2
4.2 ARETOA

ZARAGÜETA


ESTUDIO FOTOGRÁFICO PAMPLONÉS
IRUÑEKO ARGAZKI-ESTUDIOA

1885-1960

EXPOSICIÓN 9 NOVIEMBRE 2023 - 13 OCTUBRE 2024
ERAKUSKETA 2023 AZAROAK 9 - 2024 URRIAK 13

Gobierno de Navarra **Nafarroako Gobernua**





ORGANIZACIÓN Y PRODUCCIÓN / ANTOLAKETA ETA EKOIZPENA
Museo de Navarra / Nafarroako Museoa

COMISARIO / KOMISARIOA
Francisco Javier Zubiaur Carreño

COORDINACIÓN / KOORDINAZIOA
Marta Arriola Rodríguez
Carmen Valdés Sagüés

CONSERVACIÓN / KONTSERBAZIOA
Artres

ENMARCACIÓN / MARKOAK IPINTZEA
Dokuzain

MONTAJE / MUNTAKETA
TransportaArte

ILUMINACIÓN / ARGIZTAPENA
Félix Mendía Villanueva

DISEÑO GRÁFICO / DISEINU GRAFIKOA
Ken

PRODUCCIÓN GRÁFICA / EKOIZPEN GRAFIKOA
La Cartelería

TEXTOS / TESTUAK
Francisco Javier Zubiaur Carreño

FOTOGRAFÍAS / ARGAZKIAK
Agustín Zaragüeta
Gerardo Zaragüeta

TRADUCCIÓN / ITZULPENA
Euskarabidea

IMPRESIÓN / IMPRIMAKETA
Idazluma

EDICIÓN / EDIZIOA
Gobierno de Navarra. Departamento de Cultura, Deporte y Turismo
Nafarroako Gobernua. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua

DL NA 2798-2023
2.ª EDICIÓN CORREGIDA

AGRADECIMIENTOS / ESKER ONAK
Luis Garbayo Erviti
Eduardo Martínez Lacabe
Y a quienes colaboren en la identificación de lugares, acontecimientos y personas /
Eta lekuak, gertaerak eta pertsonak identifikatzen laguntzen dutenei

PORTADA / AZALA: RETRATO DE DAMA. AGUSTÍN ZARAGÜETA, 1890-1900.
FOTO SUPERIOR / GOIKO ARGAZKIA: AGUSTÍN ZARAGÜETA COLMENARES

ZARAGÜETA

ESTUDIO FOTOGRÁFICO PAMPLONÉS
IRUÑEKO ARGAZKI-ESTUDIOA
1885-1960

Francisco Javier Zubiaur Carreño

El estudio profesional “Zaragüeta e Hijos” permaneció en funcionamiento en Pamplona desde aproximadamente 1885 a 1960. Hasta la década de 1950 tuvo su domicilio en el ático del portal número 31 de la Plaza de la Constitución (de la República a partir de 1931 y del Castillo desde 1936). Lo inició **Agustín Zaragüeta Colmenares** (San Sebastián, 1859-Pamplona, 1929), en el local que abandonó Emilio Pliego, que estuvo asociado con su colega Leopoldo Ducloux, con quien Agustín había aprendido fotografía en París de mano de los ópticos sucesores de Chevalier, renombrados comerciantes que habían suministrado sus lentes a fotógrafos históricos como Nièpce y Daguerre. La estancia parisina también la aprovechó para aprender litografía.
Ya establecido en nuestra capital, donde contaba con familiares acomodados dedicados al negocio de la Harinera La Pamplonesa, sobresaldrá como retratista de personajes de la alta sociedad, al mismo tiempo especializado en la clase militar, en cuya materia alcanzará renombre popular, así como en la crónica social ligada a los acontecimientos locales. Se caracterizaron sus fotografías por su cuidada composición, depurada

“Zaragüeta e Hijos” estudio profesionalak 1885etik 1960ra arte jardun zuen Iruñean. 1950eko hamarkadara arte, Konstituzio plazan egon zen (1931tik aurrera Errepublikaren plaza eta 1936tik aurrera Gazteluko plaza deiturikoan), 31 zenbakiaren atikoan, Emilio Pliegok utzitako lokalean, hain zuzen. **Agustín Zaragüeta Colmenaresek** (Donostia, 1859-Iruña, 1929) zabaldu zuen, Leopoldo Ducloux lankidearekin batera; izan ere, biek argazkigintza ikasia baitzuten Parisen, Chevalier optikoen oinordekoekin. Optiko haiek merkatari ospetsuak ziren eta haien lenteak erabiliak zituzten zenbait argazkilari historikok, hala nola Nièpcek eta Daguerrek. Parisko egonaldia litografia ikasteko ere baliatu zuen Zaragüetak.
Behin gure hiriburuan kokatuta, non Harinera La Pamplonesa negozioan ziharduten senide dirudun batzuk baitzituen, goi-gizarteko pertsonaien erretratuak egiten nabarmendu zen. Aldi berean, klase militarrean espezializatu eta jende artean ospe ona lortu zuten arlo horretan, baita tokiko gertaerei loturiko kronika sozialean ere. Argazkien konposizio landua, teknika zaindua eta modeloen dotoretasuna izan ziren haren lanen



técnica y elegancia de sus modelos. Éstas abarcaron desde 1885 a principios de la década de 1920.
Contrajo matrimonio con Luisa Zabalo Alzugaray, hija de un notario de la ciudad, de quien tendría seis hijos, dos de los cuales se dedicarían a la fotografía: el mayor, Luis, se establecería por separado en la calle Blanca de Navarra 16 (actual calle Mercaderes), aunque su trayectoria sería menor que la de su penúltimo hermano, Gerardo (Pamplona, 1895-1985), que es quien aseguraría la pervivencia del estudio desde 1908, en que comenzara como aprendiz con su padre, hasta principios de la década 1960, aunque en los últimos diez años la sede del estudio se trasladaría a la calle Amaya 4, 2° A, cerrándose tras su jubilación.
El conjunto del material fotográfico de Agustín y Gerardo ingresó en el Museo de Navarra por compra a sus herederos en 1993. Se compone de 4.838 unidades, todas ellas, menos 380 clichés flexibles de nitrato de celulosa, son negativos a la gelatina con bromuro de plata sobre placa de cristal, material en su mayor parte no datado, aunque la mayoría de las imágenes conservadas pertenece a las décadas 1920, 1930 y 1940, es decir, fueron obtenidas por Gerardo Zaragüeta Zabalo en su casi totalidad, ya que por razón de cronología, las anteriores (unas cuarenta de mayores dimensiones) pertenecen a su padre Agustín Zaragüeta Colmenares.
El campo de trabajo de **Gerardo Zaragüeta** se centra en Pamplona, bien

ezaugarri nagusiak. 1885etik 1920ko hamarkadaren hasierara arte aritu zen argazkigintzan.
Luisa Zabalo Alzugaray hiriko notario baten alabarekin ezkondu, eta sei seme-alaba izan zituzten. Haietako bik argazkilaritzan jardun zuten: zaharrenak, Luisek, Nafarroako Blanca kaleko 16an (gaur egungo Mercaderes kalean) paratu zuen egoitza, baina haren ibilbidea ez zen izan azken-aurreko anaiarena bezain esanguratsua; izan ere, Gerardo anaiak (Iruña, 1895-1985) hartu zuen aitaren estudioaren ardura, harekin 1908an aprendiz gisa hasita. Estudioa 1960ko hamarkadaren hasierara arte izan zuen zabalik, nahiz eta azken hamar urteetan Amaia kaleko 4. zk.ko 2. A-ra eraman. Bera erretiratzearekin batera itxi zen.
Agustín eta Gerardoren argazki-materiala 1993an sartu zen Nafarroako Museoan, oinordekoei erosita. Funts hori 4.838 unitatek osatzen dute eta, zelulosa-nitratozko 380 klixe malgu izan ezik, guztiak dira kristalezko plakaren gainean zilar-bromuroa duten gelatinadun negatiboak. Material gehiena datatu gabe dagoen arren, gordetako irudi gehienak 1920, 1930 eta 1940ko hamarkadetakoak dira, hau da, Gerardo Zaragüeta Zabalok ateratakoak dira ia guztiak; izan ere, kronologiari erreparaturik, lehenagoko argazkiak (berrogei bat, handiagoak denak) Agustín Zaragüeta Colmenares aitak eginak dira.
Gerardo Zaragüetaren lana Iruñean ardazten da: hiria agertokia izan ohi da, baita zeharkako erreferentzia ere,

como escenario o como referencia indirecta, al haber seguido con su cámara los movimientos de los pamploneses en el exterior.

Temáticamente se compone de retrato, reportaje, arquitectura y urbanismo, patrimonio artístico, producto comercial, paisaje rural y fiestas.

El retrato es de estudio o tomado en directo, bien sea el individual (personas, difuntos, incluso artefactos como autobuses de línea...); el corporativo ligado a la profesión, un oficio o una práctica (enfermeras, médicos, catedráticos, actores, músicos, militares, políticos y artesanos), tomados por la cámara en su ambiente; y de grupo (familiar sin excluir al servicio doméstico, promociones de estudiantes de la Escuela Normal de Magisterio con sus profesores..., que posan ex profeso). Mayormente sus personajes son adultos, pero muchos de ellos son jóvenes, abundan los grupos femeninos, incluso los de niños, sin diferenciaciones sociales en aparente armonía.

El reportaje tiene una dimensión social acusada y está ligado al acontecimiento y la celebración, sea la inauguración de un monumento, la ampliación de la trama urbana pamplonesa con nuevos edificios, oficinas o instalaciones, con que se nos presenta la incipiente modernidad, funcionalismo y bienestar de una época; actos oficiales a menudo de carácter político (relacionados con el nacionalismo vasco, elecciones, discursos patrióticos, manifestaciones,

haren kamerak iruindarren kanpoko ibilaldiei ere segitu baitzien.

Erretratua, erreportajea, arkitektura eta hirigintza, arte-ondarea, salgaiak, landa-eremuetako paisaiak eta festak dira haren argazkien gaiak.

Erretratua estudiokoa da edo zuzenean hartutakoa; batzuk banakako erretratuak dira (pertsonak, hildakoak, baita artefaktuak ere, lineako autobusak, adibidez); beste batzuk, korporatiboak, lanbide, langintza edo jardun bati lotuak (erizainak, sendagileak, katedradunak, aktoreak, musikariak, militarrak, politikariak eta artisauak), talde bakoitza bere giroan ageri dela; eta taldekoak (familiakoak, etxeko langileak barne; Irakasleen Eskola Arrunteko ikasleen promozioak eta haien irakasleak, eta abar, berariaz posatuz denak). Jende gehiena heldua da, gazteak haietako asko, eta emakume-talde aunitz ere badago, baita haur-taldeak ere, gizarte maila guztietakoak, eta harmonian, itxuraz.

Erreportajeak alderdi sozial nabarmena du, eta ekitaldi zein ospakizunei lotua dago: dela monumentu baten inaugurazioa, dela Iruñeko hiri-bilbea zabaldu zuten eraikin, bulego edo instalazio berriak, haien bidez erakusten zaigularik garai hartako modernitate hasiberria, funtzionalismoa eta ongizatea.

Ekitaldi ofizialak ere badira, politikoak sarritan (euskal abertzaletasunarekin, hauteskundeekin, diskurtso patriotikoekin, manifestaldiekin eta Errepublikaren aurkako mobilizazioarekin lotuak); desfile



RETRATO DE TENIENTE CORONEL DEL EJÉRCITO CON SU ESPOSA
AGUSTÍN ZARAGÜETA COLMENARES
HACIA 1900 / 1900 INGURUAN

la movilización contra la República); desfiles folklóricos, cortejos fúnebres y procesiones (Corpus Christi, Domingo de Ramos, llegada de la imagen del arcángel San Miguel de Aralar, Sagrado Corazón de Jesús...); competiciones

folklorikoak, hileta-segizioak eta prozesioak (Bestaberrikoa, Erramu-igandekoa, Aralarko San Migel goiaingeruaren irudiaren etorrera, Jesusen Bihotza...); kirol lehiaketak (futbolari, txirrindulari, pilotari,



RETRATO FAMILIAR
AGUSTÍN ZARAGÜETA COLMENARES
HACIA 1900-1910 / 1900-1910 INGURUAN

deportivas entre futbolistas, ciclistas, pelotaris, nadadores, boxeadores, gimnastas o figuras del pedestrismo; espectáculos taurinos; ligado también a noticias relevantes para la sociedad del momento, pero siempre primando su impacto en el público (de ahí su atracción por las aglomeraciones humanas motivadas por la repetición de costumbres inveteradas). Como fondo, siempre la ciudad misma con su vida propia.

Dentro de la clasificación patrimonio artístico entran el reportaje y la reproducción. En el primer caso, sus

igerilari, boxeolari, gimnasta edo korrikalarienak) eta zezenketak, eta orduko gizartearentzat garrantzitsuak izaniko albisteen irudiak, betiere gertakariak jendearengan izaniko eragina lehenetsiz (hortik datorkio jendeketek sortzen dioten lilura ohitura zaharretan sustraituriko ekitaldietan biltzen direla). Eta hondoan, beti hiri bera eta bertako bizitza berekia.

Ondare artistikoaren barnean erreportaje eta erreprodukzio lanak daude. Lehen kasuan, argazkiek erakusten dute, adibidez, 1935ean berreskuratu zutela Leireko kutxatila

fotografías informan, por ejemplo, de la recuperación en 1935 de la arqueta hispano–árabe de Leire robada de su antiguo emplazamiento, la Catedral de Pamplona; de exposiciones en la seo con elementos del exorno artístico incluyendo los diseños en estilo neogótico de profesionales como Artieda o Menchón. También se incluyen reproducciones de carteles anunciadores de las fiestas de San Fermín o del Aberri Eguna, y obras de algunos pintores como Ciga, Basiano, Lizarraga y Gutxi.
Un aspecto novedoso en la fotografía de los años 20 y 30 del pasado siglo es el interés del estudio Zaragüeta por la reproducción de mobiliario con fines publicitarios (mesas de despacho, radiadores, plafones, sillones, incluso casullas y confesionarios) con destino a catálogos comerciales y periódicos.
Además del paisaje urbano de Pamplona, el Fondo Fotográfico Zaragüeta también recoge paisajes de pueblos navarros, generalmente de sus cascos históricos vistos en conjunto (Viana, Roncesvalles y Zona Media), o asociados al progreso industrial (mostrando el embalse de Irabia, la Electra Puente Marín de Mugaire–Almándoz, serrerías, pabellones fabriles, los primeros chalets para una clase acomodada), ligados en ocasiones a la belleza natural de parajes como el nacedero de Arteta. Paisajes a menudo asociados a grupos de excursionistas.
Las fiestas populares constituyen uno de los campos más atendidos por el estudio Zaragüeta, principalmente por

hispano–arabiarra, garai bateko kokalekutik lapurtua izan baitzen, Iruñeko katedraletik, alegia; eta erakusketa batzuk egin zituztela katedralean apaindura artistikoaren osagaiekin, estilo neogotikoko diseinuak ere erakutsiz, Artieda eta Menchón egileenak, besteak beste. Sanferminetako edo Aberri Eguneko jaiak iragartzeko kartelen argazkiak ere badaude, baita zenbait margolariren lanak ere, hala nola Ciga, Basiano, Lizarraga eta Gutxirenak.
Bada alderdi berri bat Zaragüeta estudioak XX. mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan eginiko argazkietan: altzarien erreprodukzioa publizitaterako, hots, katalogo komertzial eta egunkarietarako (bulego–mahaiak, berogailuak, plafoiak, besaulkiak, baita meza–jantzi eta aitorlekuak ere ageri dira argaki horietan).
Iruñeko hiri–paisaiaz gain, Zaragüeta argazki–funtsean Nafarroako herrietako paisaiak ere ageri dira, hirigune historikoetako irudi orokorrak (Viana, Orreaga, Erdialdeko herriak), edo industriaren aurrerapenari loturikoak (Irabiako urtegia, Mugairi eta Almandozko Electra Puente Marín zena, zerrategiak, fabriketako pabiloiak, aberatsendako lehen txaletak), batzuetan inguruko parajeen edertasun naturala uztartzen zaie, hala nola Artetako iturburua. Txangozaleen taldeei lotutako paisaiak dira askotan.
Herriko jaiak dira Zaragüeta estudioak, eta batez ere Gerardok, argazkietara gehien eramandako





MADRINAS DE LAS PEÑAS EN LA PLAZA DE TOROS
GERARDO ZARAGÜETA ZABALO
DÉCADA 1930 / 1930EKO HAMARKADA

←
JUAN ECHEPARE ARAMENDÍA LANZA EL PRIMER CHUPINAZO DE LAS FIESTAS EN LA PLAZA DEL CASTILLO
GERARDO ZARAGÜETA ZABALO
1931

Gerardo, casi en exclusiva dedicado a Pamplona. Aparecen en él todas las facetas de los Sanfermines: el cortejo municipal, que se abre paso por las calles; el ciclo taurino (enchiquerado de los toros, encierro, suelta de vaquillas, bombero torero, banda bufa del Empastre, novilladas y las corridas con todos sus lances, tendidos abarrotados de espectadores...); las peñas y sus madrinas; la comparsa de gigantes, cabezudos, kilikis y zaldikos; y las atracciones de feria.
En sus característicos planos de conjunto, Gerardo logra individualizar a cada persona con su espontánea expresión, gracias a su depurada técnica fotográfica que se apoya en el uso de lentes de gran angular

gaietako bat, eta irudi ia guztiak Iruñeko festetakoak dira. Haietan sanferminetako alderdi guztiak ageri dira: udal segizioa, kalez kale dabilela; zezenketa-zikloa (zezenak torilean, entzierroa, bigantxak, *bombero torero* ikuskizunak, *Empastre* musika-banda bufoa, zekorketak, zezenketaren lantze guztiak, harmailak ikuslez mukuru...); peñak eta peñetako amabitxiak; erraldoiak, buruhandiak, kilikiak eta zaldikoak, eta barrakak.
Oso bereak dituen plano orokorretan, Gerardok norbanako bakoitza bereiz agertzea lortzen du, zein bere eite espontaneoan harrapatuz argazki-teknika findu bati esker. Teknika horretan angelu handiko lenteak baliatzen zituen,“Linhof



NIÑAS AL CUIDADO DE UNA HIJA DE LA CARIDAD
GERARDO ZARAGÜETA ZABALO
DÉCADA 1930 / 1930EKO HAMARKADA

sobre cámaras de relativa ligereza tipo “Linhof Technika” para usar con trípode o sin él e impresionar placas de cristal gracias al dominio de la escala de planos que le permite visionar la totalidad y sus detalles, así como a los emplazamientos escogidos y a su don de la oportunidad para estar en el lugar donde se desarrollan los acontecimientos tomando de ellos ese instante decisivo que los convierte en palpitantes (así los toros y mozos en la carrera alocada del encierro, los saltadores de trampolín sorprendidos en el aire o los hechos histórico-políticos que se producen en el tiempo) cuyas circunstancias pueden

Technika” motako kamera arin samarren gainean, tripodea erabiliz edo ez. Gero, kristalezko plakak inpresionatzen zituen, planoen eskala artez erabiltzen baitzekien, eta eskala horrek modua ematen zion plano osoa eta xehetasunak ikuskatzeko. Gainera, iaioa zen kokalekuak hautatzen, eta trebea zen gertakariak non, bera han suertatzen; hortaz, gai zen gertaerak pil-pilean dauden istant hori atzemateko (zezenak eta lasterkariak entzierroaren korrika zoroan, airean harrapaturiko tranpolin-jauzilariak edo garaian garaiko gertaera historiko-politikoak), hain inguruabar itxuraz ezohiko edo salbuespenezkoetan,



CICLISTAS RECIBIDOS EN LA META. IX CIRCUITO DE PAMPLONA. GANADOR: ANTONIO ESCURIET (IZDA.)
GERARDO ZARAGÜETA ZABALO
19 DE ABRIL DE 1936 / 1936KO APIRILAREN 19A

parecer tan insólitas o excepcionales que nadie crea que hayan podido suceder. La espontaneidad es el rasgo característico de esta fotografía que le añade un interés particular.
Puede concluirse que el quehacer profesional de los Zaragüeta abarca el retrato de estudio, la fotografía de actualidad, y, en el caso de Gerardo, el reportaje gráfico periodístico por su vinculación como reportero del diario La Voz de Navarra, el Club Atlético Osasuna y La Gaceta Sportiva de Barcelona (para la que colaboró en la década de 1920).
En definitiva, el Fondo Fotográfico Zaragüeta, del Museo de Navarra,

non guztioi sinesgaitza zaigun egiaz gertatu izana. Espontaneotasuna da argazkigintza horren ezaugarri bereizgarria, eta horrek bihurtzen du bereziki interesgarri.
Horiek horrela, esan genezake zaragüetarren jardun profesionalak barne hartzen dituela estudioko erretratua, aktualitateko argazkilaritza eta, Gerardoren kasuan, kazetaritzako erreportaje grafikoa; izan ere, Osasuna Klub Atletikoko eta *La Voz de Navarra* egunkariko erreportaria izateaz gain, Bartzelonako *La Gaceta Sportiva*rako ere aritu zen 1920ko hamarkadan.
Azken batean, Nafarroako Museoaren Zaragüeta argazki-funtsak



MANDOS DEL REQUETÉ ALZADOS CONTRA LA REPÚBLICA
GERARDO ZARAGÜETA ZABALO
19 DE JULIO DE 1936 / 1936KO UZTAILAREN 19A

documenta uno de los periodos históricos más interesantes de la historia local contemporánea: el de la primera mitad del siglo xx, fundamentalmente de los intensos años 1920, 1930 y 1940.

tokiko historia garaikidearen aldi historiko interesgarrienetako bat dokumentatzen du: xx. mendearen lehen erdia, batez ere 1920., 1930. eta 1940. urte pilpiragarriak.

Bibliografía

Francisco Javier Zubiaur Carreño, *Zaragüeta fotógrafos*, catálogo de exposición en el Museo de Navarra, Gobierno de Navarra, 2010.

Carlos Cánovas, *Navarra/Fotografía*, Gobierno de Navarra, 2012.

Bibliografia

Francisco Javier Zubiaur Carreño, *Zaragüeta fotógrafos*, Nafarroako Museoko erakusketa-katalogoa, Nafarroako Gobernua, 2010.

Carlos Cánovas, *Navarra/Fotografía*, Nafarroako Gobernua, 2012.

Las fotografías expuestas son copias fotográficas *glicée* sobre papel baritado de conservación.

Erakusketako argazkiak *glicée* teknikaren bidezko kopiak dira, kontserbazioko barita-paperean eginak.

Agustín Zaragüeta Colmenares
1859-1929

Retrato de dama
1890-1900

Retrato de teniente coronel del Ejército con su esposa
Hacia 1900 / 1900 inguruan

Retrato familiar
Hacia 1900-1910 / 1900-1910 inguruan

Cicloturistas en Berriozar
Hacia 1900-1910 / 1900-1910 inguruan

Gerardo Zaragüeta Zabalo
1896-1985

Religiosidad / Erlijioa

Artajona engalanada para la constitución de la Adoración Nocturna
Octubre 1917 / 1917ko urria

La imagen de San Miguel recibida en la calle Navas de Tolosa
Década 1940 / 1940ko hamarkada

Participantes en la misión popular. Santa Fe de Epároz
Década 1940 / 1940ko hamarkada

Entrada oficial del nuevo obispo Marcelino Olaechea
11 de noviembre de 1935 / 1935eko azaroaren 11

Viático general por la calle Mayor
Hacia 1930-1940 / 1930-1940 inguruan

Sociedad / Gizartea

Niñas al cuidado de una Hija de la Caridad
Década 1930 / 1930eko hamarkada

Los vecinos de Berrioplano Ángel y Vicente Insausti, descubridores de la Arqueta de Leire robada en la Catedral
1935

Familias Zaragüeta y Gatell con sus hijos y servicio
1929

Homenaje a Pedro Trinidad Royo, portador de la Reina Blanca junto a Emilio de Sola Ramos, Gobernador Civil de Navarra
1935

Médicos y farmaceúticos celebran a sus patronos san Cosme y san Damián. En el centro, Victoriano Juaristi (con pajarita)
Década 1930 / 1930eko hamarkada

Personal del Hospital General de Pamplona. En el centro el Dr. Serafín Húder (con barba)
Hacia 1932 / 1932 inguruan

Etnografía / Etnografia

Expresión vasca en Elizondo
Década 1930 / 1930eko hamarkada

Dantzaris del paloteado de Cortes
Década 1930 / 1930eko hamarkada

Juan Echepare Aramendía lanza el primer chupinazo de las fiestas en la Plaza del Castillo
1931

Madrinas de las peñas en la Plaza de Toros
Década 1930 / 1930eko hamarkada

Banda cómico-taurina musical El Empastre. Plaza de Toros
Hacia 1920-30 / 1920-30 inguruan

Vida política / Bizitza politikoa

Miembros del Partido Radical Socialista. Francisco Barnés (con barba), vicepresidente de las Cortes; al margen derecho, el concejal Antonio García-Fresca, catedrático de Ciencias del Instituto
Febrero de 1932 / 1932ko otsaila

Destacados miembros del Partido Nacionalista Vasco en el Euskal-Jai: José Antonio Aguirre (con cigarrillo) entre Félix Izco (izda.), Serapio Esparza y Manuel Irujo (dcha.)
12 de noviembre de 1933 / 1933ko azaroak 12

Votantes ante el colegio electoral de la Casa de Maternidad e Inclusa. Cuesta del Palacio. Elecciones generales
19 de noviembre de 1933 / 1933ko azaroaren 19a

Mandos del Requeté alzados contra la República
19 de julio de 1936 / 1936ko uztailaren 19a

Formación de falangistas sublevados en el Cuartel General Moriones
19 de julio de 1936 / 1936ko uztailaren 19a

Deporte / Kirola

Equipo de fútbol de las Escuelas del Ave María (Rochapea)
Década 1930 / 1930eko hamarkada

Remontistas aficionados en el Frontón Euskal-Jai
Década 1930 / 1930eko hamarkada

Ciclistas recibidos en la meta. IX Circuito de Pamplona. Ganador: Antonio Escuriet (izda.)
19 de abril de 1936 / 1936ko apirilaren 19a

Demostración gimnástica de alumnas de la Escuela Normal de Magisterio. A la izda. el profesor Demetrio Garralda
Junio de 1931 / 1931ko ekaina

Fernando Rein Loring, audaz aviador español del vuelo Madrid-Manila en 12 días
1932



SANTO DOMINGO, 47. 31001 PAMPLONA
WWW.MUSEODENAVARRA.NAVARRA.ES